*Que el proyecto de construcción (área cubierta) justifique y cumpla el CTE-DB-SI.

3.- Aurretik azpimarratutako baldintza horiek eta txostenetan jasotako baldintzak obrak egiten ari diren bitartean ikuskatu beharko dira, eta obrak hartzen direnerako bete beharko dira.

3º.- Todos estos condicionantes y los requerimientos contenidos en los informes obrantes deberán de verificarse durante la ejecución de las obras y deberán de estar cumplidas de cara a recibir las mismas.

4.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

4º.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del plan.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2017ko azaroaren 27ean.

Lo proponen para su adopción por el Pleno en San Sebastián a 27 de noviembre de 2017.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU, EXEKUZIOKO ETA BIRGAIKUNTZA ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN, EJECUCIÓN Y REHABILITACIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.: Juan Carlos Cuevas Argandoña

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD
Sin. / Fdo.: Enrique Ramos Vispo".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Alkate-Udalburuak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D.ª Miren Albistur Garmendia, D. Ricardo Burutaran Ferré, Alcalde-Presidente y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**7. Ikusgai izatea Lasarte-Oria eta Donostia udalerriak bateragarri egiteko plana, Lasarte-Oriako arua subsidiarioetako "A.33 Teresategi" eremuari eta Donostiako HAPOko "AÑ.10 Errekalde (11)" eremuari eta bide-sistema orokorrari buruzkoa.**

**7. Exposición al público del convenio para la tramitación del Plan de compatibilización de los municipios de Lasarte-Oria y Donostia - San Sebastián referido a los ámbitos "A.33 Teresategi" de las NNSS de Lasarte y "AÑ.10 Recalde (II) y sistema general viario del PGOU DE Donostia – San Sebastián".**

"IKUSGAI IZATEA LASARTE-ORIA ETA DONOSTIA UDALERRIAK BATERAGARRI EGITEKO PLANA, LASARTE-ORIAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO "A.33 TERESATEGI" EREMUARI ETA DONOSTIAKO HAPOKO "AÑ.10 ERREKALDE (II)" EREMUARI ETA BIDE-SISTEMA OROKORRARI BURUZKOA, IZAPIDETZEKO HITZARMENA

"EXPOSICIÓN AL PÚBLICO DEL CONVENIO PARA LA TRAMITACIÓN DEL PLAN DE COMPATIBILIZACIÓN DE LOS MUNICIPIOS DE LASARTE-ORIA Y DONOSTIA SAN SEBASTIÁN REFERIDO A LOS ÁMBITOS "A.33 TERESATEGI" DE LAS NNSS DE LASARTE Y "AÑ.10 RECALDE (II) Y SISTEMA GENERAL VIARIO DEL PGOU DE DONOSTIA – SAN SEBASTIÁN

Lasarte – Oriako Udalak bere izapide eta onarpenerako Lasarte-Oria eta Donostia Udalerriak Bateragarri egiteko Plana, Lasarte-Oriako Arau Subsidiarioetako “A.33 Teresategi” eremuari eta Donostiako HAPOko “Añ.10 Errekalde (II)” eremuari eta bide-sistema orokorrari buruzkoa

Por parte del Ayuntamiento de Lasarte – Oria se presenta para su tramitación y aprobación el convenio para la tramitación del Plan de Compatibilización de los municipios de Lasarte-oria y Donostia San Sebastián referido a los ámbitos “A.33 Teresategi” de las NNSS de Lasarte y “AÑ.10 Recalde (II) y Sistema General Viario del PGOU de Donostia – San Sebastián

Dokumentu hone bidez Donostiako Udalak eta Lasarte – Oriako Udalak Lasarte-Oria eta Donostia udalerriak Bateragarri egiteko Planean, Lasarte-Oriako Arau Subsidiarioetako “A.33 Teresategi” eremuari eta Donostiako HAPOko “Añ.10 Errekalde (II)” eremuari eta bide-sistema orokorrari buruzkoan, bi udalerri horietakoak diren lurren hirigintza-garapena egiteko lortutako akordioak gauzatzen dituzte.

Por medio del presente documento el Ayuntamiento de Donostia- San Sebastián y el Ayuntamiento de Lasarte – Oria, plasman los acuerdos que han alcanzado para el desarrollo urbanístico conjunto de los suelos pertenecientes a ambos municipios que quedan englobados en el Plan de Compatibilización de los municipios de Lasarte-Oria y Donostia-San Sebastián referidoa los ámbitos “A.33 Teresategi” de las NNSS de Lasarte-Oria y “AÑ.10 Recalde (II)” y sistema general viario del PGOU de Donostia-San Sebastián

Aurkeztutako dokumentuak aldeko txosten hauek ditu:

*Juridikoa: 2017/6/9

*Ekonomikoa: 2017/8/11

El documento presentado cuenta con los siguientes informes favorable:

*Jurídico: 9/6/2017

*Económico: 11/8/2017

Hitzarmena izapidetzeko bidea Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriak jartzen duen eran egin behar da, non beste xedapen batzuen artean, honako hau esaten da: Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta toki-entitatek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrenean garatzeko. Pertsonok ez dute zertan izan kasuan kasuko lursailen jabe.

La tramitación del convenio ha de acomodarse a lo dispuesto en la Disposición Adicional Séptima de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, donde entre otras disposiciones, se establece: La Administración de la Comunidad Autónoma y las entidades locales podrán suscribir, conjunta o separadamente, convenios con personas públicas o privadas, tengan éstas o no la condición de propietarios de los terrenos correspondientes, para su colaboración en el mejor y más eficaz desarrollo de la actividad urbanística.

Udalari dagokio hirigintza-hitzarmenak onartzea. Horretarako, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da lehenago osorik, eta jendeaurrean jarriko da, gutxienez 20 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

La aprobación de los convenios urbanísticos corresponde al ayuntamiento, previa apertura de un período de información pública por plazo mínimo de veinte días en el que se expondrá su contenido íntegro en el boletín oficial del territorio histórico y en el que se podrán presentar alegaciones.

Horiek horrela direla, Toki Araubidearen Oinarrien gaineko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123.j) artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartuta, udal honetako Gobernu Batzarrak

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 j) de la Ley 7/85 de 2 de Abril, reguladora de las Bases del régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento de san Sebastián

E R A B A K I D U

A C U E R D A

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogei egunean ikusgai jarrita edukitzea Lasarte-Oria eta Donostia Udalerriak Bateragarri egiteko Plana, Lasarte-Oriako Arau Subsidiarioetako “A.33 Teresategi” eremuari eta Donostiako HAPOko “AÑ.10 Errekalde (II)” eremuari eta bide-sistema orokorrari buruzkoa alegazioak aurkeztu daitezken.

Someter a información pública, durante el plazo de veinte días, el contenido íntegro del convenio para la tramitación del Plan de Compatibilización de los municipios de Lasarte-oria y Donostia San Sebastián referido a los ámbitos “A.33 Teresategi” de las NNSS de Lasarte y “AÑ.10 Recalde (II) y Sistema General Viario del PGOU de Donostia – San Sebastián mediante su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a efectos de que se puedan formular alegaciones.

Hitzarmenak bere behin betiko onarpenean espedientean dauden txostenak ezarritako baldintzak jasoko ditu eta 1992/30 Legeari egindako aipamenak kenduko ditu, 2015/39 Legearengatik ordezkatuz.

El Convenio en su aprobación definitiva incorporará los condicionantes impuestos en los informes obrantes en el expediente y eliminará toda referencia a la Ley 30/1992, sustituyéndolas por la Ley 39/2015.

Donostia, 2017ko abenduaren 5a

Donostia - San Sebastián, a 5 de diciembre de 2017.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU, EXEKUZIOKO ETA BIRGAIKUNTZA ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN, EJECUCIÓN Y REHABILITACIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE

Sin. / Fdo.:  Juan Carlos Cuevas Argandoña

HIRIGINTZA SOSTENGARRIKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE LA CIUDAD
Sin. / Fdo.: Enrique Ramon Vispo".

Eztabaida hasita, Idazkari jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores Sr. Secretario, D. Enrique Ramos Vispo, D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**8. Behin betiko onarpena ematea Illunbe MZ.04 (Miramon-Zorroaga) hirigintza eremuaren hirigintza antolaketako Plan bereziari.**

**8. Aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito urbanístico AU. MZ.04 Illunbe (Miramón-Zorroaga).**

**KENDUA.**

**RETIRADO.**

---------------

**GUNE PUBLIKOEN BATZORDEA. OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK**

**9. Donostiako udalaren ur hornidura eta saneamenduko araudia. Hasierako onarpena.**

"UDALBATZARI

Udalbatzak, 1999ko urriaren 19an izan zuen bilkuran, Donostiako Udalaren Ur Zerbitzuaren araudiari behin betiko onespena ematea erabaki zuen (GAO, 1999ko abenduaren 28a, 247. zk.).

Araudi hori zaharkituta geratu da zenbait alderdi teknikotan. Era berean, araudiaren beraren gauza batzuk ere aldatu beharra dago, Udalak eta Ur eta Saneamendu Zerbitzuak berak gaur egun dituzten beharrei erantzun ahal izateko:

1. Ur eta saneamendu harguneetako alderdi tekniko batzuk.

2. Saneamendua eta isurtzea.

3. Ur kontagailuen alderdi tekniko batzuk.

4. Arauen inguruko alderdi batzuk.

Proposatu dugun araudi berriak lehen esandako alderdi tekniko horien inguruko artikuluak bakarrik aldatu ditu.

Hortaz, 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoarekin bat, memoria bat burutu zen, indarrean jarri nahi den erregelamentu berria azaltzeko eta web orrian argitaratu zen.

**COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO. OBRAS Y SERVICIOS URBANOS**

**9. Aprobar inicialmente el nuevo Reglamento de Abastecimiento y Saneamiento del Ayuntamiento de San Sebastián.**

"AL EXCMO. AYUNTAMIENTO PLENO

Por el Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 19 de octubre de 1999 se aprobó definitivamente el reglamento del servicio municipal de aguas. (BOG nº 247 de 28 de diciembre de 1999).

Dicho reglamento se ha quedado obsoleto en algunos aspectos técnicos. También es necesaria la modificación de algunos aspectos de la propia normativa para poder hacer frente a las necesidades actuales del Ayuntamiento y del propio Servicio Explotación de Agua y Saneamiento:

1. Aspectos técnicos acometidas de agua y saneamiento.

2. Saneamiento y vertidos.

3. Aspectos técnicos en los contadores de agua.

4. Aspectos normativos.

El nuevo reglamento propuesto solo ha modificado aquellos artículos referidos a los aspectos indicados.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, se redactó memoria explicativa sobre el nuevo reglamento que se pretende aprobar y se expuso en la página web municipal.

Horiek horrela, aurrez Gobernu Batzarrean eztabaidatu ondoren, honako hauek onartzea proposatzen diogu Udalbatzari

En virtud de cuanto antecede se propone al Excmo. Ayuntamiento Pleno que, previa deliberación de la Junta de Gobierno, adopte los siguientes

ERABAKIAK

ACUERDOS:

1. Hasierako onarpena ematea Donostiako Udalaren Ur hornidura eta Saneamenduko Araudiari. (Araudiaren testua honekin batera doa).

1. Aprobar inicialmente el nuevo Reglamento de Abastecimiento y Saneamiento del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, según el texto íntegro de la misma que se adjunta.

2. Informazioa publiko egiteko tramitea ezartzea 30 eguneko epean, apirilaren 2ko 7/85 Erregimen Lokaleko Oinarri Legearen 49. artikuluak ezarritakoarekin bat, interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazio edo iradokizunak egin ditzaten.

2. Someter al trámite de información pública durante el plazo de 30 días según lo dispuesto en el artículo 49 de la ley 7/85, de 2 de abril de Bases de Régimen Local, a fin de que los interesados puedan presentar las reclamaciones o sugerencias que estimen pertinentes.

Halakorik aurkeztu ezean, behin betirako onartutzat emango da.

En el caso de que éstas no se presenten se entenderá aprobada definitivamente.

Donostia, 2017ko abuztuaren 22a

HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUETAKO ADMINISTRAZIO ATALEKO BURUA
Jon Amondarain Ayerbe

O.E.
HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUETAKO ZUZENDARIA
Juan Ortiz de Zarate Soroeta

O.E.
GUNE PUBLIKOETAKO, EKOLOGIAKO ETA FESTA JARDUERETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
Karguan ez dagoenez,
BIDE PUBLIKOETAKO ETA INGURUMENEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
Miguel Angel Díez Bustos".

Eztabaida hasita, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Alfonso Gurpegui Ruiz, D. Loïc Alejandro y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 3. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 3 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 4. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 4 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 5. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 5 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 6. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 6 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 7. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 7 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

| | |
|---|---|
| BOZKETAREN EMAITZA: | RESULTADO DE LA VOTACIÓN: |
| BAZTERTUA. | RECHAZADA. |
| GEHIENGOA. | MAYORÍA. |
| ALDEKO BOTOAK: 7 - (5) EH BILDU, (2) PP. | VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) PP. |
| AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE. | VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE. |
| ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA. | ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA. |

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 8. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 8 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

| | |
|---|---|
| BOZKETAREN EMAITZA: | RESULTADO DE LA VOTACIÓN: |
| BAZTERTUA. | RECHAZADA. |
| GEHIENGOA. | MAYORÍA. |
| ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA. | VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA. |
| AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE. | VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE. |
| ABSTENTZIOAK: 2 – PP. | ABSTENCIONES: 2 – PP. |

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 9. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 9 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

| | |
|---|---|
| BOZKETAREN EMAITZA: | RESULTADO DE LA VOTACIÓN: |
| BAZTERTUA. | RECHAZADA. |
| GEHIENGOA. | MAYORÍA. |
| ALDEKO BOTOAK: 5 – EH BILDU. | VOTOS A FAVOR: 5 – EH BILDU. |
| AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE. | VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE. |
| ABSTENTZIOAK: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA. | ABSTENCIONES: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA. |

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 10. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 10 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 5 – EH BILDU.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 4 – (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

**EH BILDU ETA PSE-EE TALDEEK AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR LOS GRUPOS EH BILDU Y PSE-EE:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

**9. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 9:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.
AURKAKO BOTOAK: 0.
ABSTENTZIOAK: 9 – (5) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 14 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE.
VOTOS EN CONTRA: 0.
ABSTENCIONES: 9 – (5) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.

---------------

## II

## INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA

## II

## INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL

### II.1

### MOCIONES

### II.1

### MOCIONES

II.1

MOZIO ARRUNTAK

**10. Mozio arrunta, IRABAZI taldeak aurkeztua, itsasertza babestea dela eta.**

"Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu nahi du, itsasertza babestea dela eta, OSOKO BILKURAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Natura 2000 Sareak gabezia ugari ditu oraindik, batez ere Kantauri aldeko eta, zehazki, euskal uretako itsas espazioei dagokienez. Nazioarteko konpromisoek itsasoa are gehiago zaintzera behartzen dituzte gobernuak. Esate baterako:

• Nazio Batuen Biodibertsitate Biologikoaren Hitzarmenaren arabera, gutxienez munduko itsas azalaren % 10 babestu behar da.

• Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundeak ehuneko hori % 20-30era igotzea eskatzen du.

• Ipar-ekialdeko Atlantikoko Itsas Ingurunea Babesteko Hitzarmenak ere (OSPAR) itsas espazio babestuen sare bat sortzea eskatzen du, haren aplikazio eremuan zehar. Eremu horren barruan sartzen dira Kantauriko urak.

Horiek hala direla, 2010. urtean, OCEANA nazioarteko erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Biologoen Elkarteak, Euskal Izurde eta Baleazaleen Elkartearekin (EIBE)

II.1

MOCIONES ORDINARIAS

**10. Moción ordinaria, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre la protección del litoral.**

"Loïc Alejandro, concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre la protección del litoral.

JUSTIFICACIÓN

Actualmente en la Red Natura 2000 existen numerosas carencias, sobre todo en el caso de espacios marinos en el área cantábrica, y concretamente en las aguas vascas. Compromisos internacionales obligan a todos los gobiernos a incrementar la conservación marina. Así, por ejemplo:

• El Convenio de Diversidad Biológica (CBD) de Naciones Unidas exige la protección de, al menos, un 10% de la superficie marina mundial.

• La Unión Internacional para la Conservación de la Naturaleza (UICN) pide que este porcentaje se eleve hasta el 20%-30%.

• La Convención para la Protección del Medio Ambiente Marino del Atlántico Nordeste (OSPAR) también exige la creación de una red de espacios marinos protegidos a lo largo de su área de aplicación, que incluye las aguas cantábricas.

Por todo ello, en el año 2010 la asociación internacional OCEANA y el Colegio de Biólogos de Euskadi (COBE), con la colaboración de EIBE (Euskal Izurde eta

elkarlanean, proposamen ofizial bat aurkeztu zuten, Jaizkibel eta Ulia parean dagoen urpeko itsasgunea Natura 2000 Sarean sartzeko eta, hala, alde horren balio ekologiko eta geologikoa areagotzeko. Horren helburua da itsasgune babestuen korridore bat sortzea Txingudiko badiarekin eta Frantziako Gobernuak euskal kostalderako egindako proposamenekin. Korridore horren barruan honako hauek sartzen dira:

11 alde babestu biltzea: 8 Hendaia eta Biarritz artean eta 3 Donostia eta Hondarribia artean.
113 habitat eta 928 itsas espezie: 8 habitat eta 104 espezie babestu.

Eusko Legebiltzarrak 2011ko otsailaren 8an egindako bilkuran, 5/2011 Legez besteko Proposamena onetsi zuen, Donostia eta Biarritz artean itsas korridore ekologiko bat sortzearen inguruan.

“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Ingurumen, Landagune eta Itsas Ingurune Ministerioari eskatzen die azter dezatela 2011n zehar Oceana Elkarteak eta Euskadiko Biologoen Elkargoak egin duten 'Protección de la zona marina de Jaizkibel y Ulia, Euskadi. Propuesta científica para la creación de un corredor ecológico marino entre Ulia (Donostia) y Biarritz' izeneko azterlana, eta elkarlanean aritu daitezela inguru horretarako egokienak diren neurriak eta babesereduak zehaztearren, hala badagokio Natura 2000 sarean sartuz".

Kostaldea modu eraginkorragoan babesteko, hala nola Donostia eta Biarritz artean 27.000 hektareako itsas korridore ekologiko bat sortuz, hainbat bilera egin beharra dute arlo horretan eskumena duten administrazioek.

Balezaleen Elkartea), presentaron oficialmente la propuesta de inclusión del área marina sumergida frente a Jaizkibel y Ulia como parte de la red Natura 2000 para aumentar el valor ecológico y geológico de la zona, y formar así un corredor de áreas marinas protegidas con la bahía de Txingudi y las diferentes propuestas del gobierno francés para la costa vasca. Ese corredor incluye:

- Integrar 11 zonas protegidas: 8 entre Hendaya-Biarritz y 3 entre Donosti-Hondarribia
- 113 hábitats y 928 especies marinos: 8 hábitats y 104 especies protegidos

En sesión celebrada en el Parlamento Vasco con fecha 8 de febrero de 2011 se aprobó la Proposición no de Ley 5/2011, relativa a la creación de un corredor marítimo ecológico entre San Sebastián y Biarritz, con arreglo al siguiente texto:

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al Ministerio de Medio Ambiente, Medio Rural y Marino a que analice durante el 2011 el estudio elaborado por la Asociación Océana y el Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi bajo el título 'Protección de la zona marina de Jaizkibel y Ulia, Euskadi. Propuesta científica para la creación de un corredor ecológico marino entre Ulia (Donostia) y Biarritz', y a trabajar conjuntamente con el objeto de determinar las medidas y figuras de protección más adecuadas para dicha zona, incluyéndola en su caso en la Red Natura 2000".

Al objeto de conseguir una protección eficaz de la costa desarrollando un corredor ecológico marino entre Donostia y Biarritz de 27.000 hectáreas marinas, es necesario que se lleven a cabo encuentros entre las diferentes administraciones con competencia en esta materia.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari bete dezala 5/2011 Legez besteko Proposamena, Donostia eta Biarritz artean itsas korridore ekologiko bat sortzearen ingurukoa.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari bidal dezala Donostia eta Biarritz artean itsas korridore ekologiko bat sortzearen inguruko 5/2011 Legez besteko Proposamena betetzeko egin dituen gestioei buruzko informazio guztia.

Donostia, 2018ko urtarrilaren 5a

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Por todo ello presentamos la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Vasco a dar cumplimiento a la proposición no de ley 5/2011, relativa a la creación de un corredor marítimo ecológico entre San Sebastián y Biarritz.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que traslade al mismo toda la información relativa a las gestiones que ha realizado para dar cumplimiento a la proposición no de ley 5/2011, relativa a la creación de un corredor marítimo ecológico entre San Sebastián y Biarritz.

Donostia a 5 de Enero de 2018

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EAJ-PNV ETA PSE-EE TALDEEK AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 10 – (5) EH BILDU, (3)**

**PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EAJ-PNV ETA PSE-EE TALDEEK AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**10. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bostean izan zuen ohiko osoko bilkuran, IRABAZI DONOSTIA taldeak kostaldea babestearen gainean aurkeztu zuen mozio arrunt bat onartu zuen, hasierako dokumentuari bi zuzenketa, EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek batera aurkeztuak, egin eta gero. Zuzenketa horietan lehenak erabaki zatiko 1. puntua aldatzen zuen, eta bigarrenak erabaki zatiko 2. puntua kentzen

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinticinco de enero de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la protección del litoral, que incorpora dos enmiendas aprobadas, presentadas conjuntamente por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, la primera de modificación del primer

zuen. Horrenbestez, azkenean hauxe da onartutako testua:

*“Natura 2000 Sareak gabezia ugari ditu oraindik, batez ere Kantauri aldeko eta, zehazki, euskal uretako itsas espazioei dagokienez. Nazioarteko konpromisoek itsasoa are gehiago zaintzera behartzen dituzte gobernuak. Esate baterako:*

*• Nazio Batuen Biodibertsitate Biologikoaren Hitzarmenaren arabera, gutxienez munduko itsas azalaren % 10 babestu behar da.*

*• Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundeak ehuneko hori % 20-30era igotzea eskatzen du.*

*• Ipar-ekialdeko Atlantikoko Itsas Ingurunea Babesteko Hitzarmenak ere (OSPAR) itsas espazio babestuen sare bat sortzea eskatzen du, haren aplikazio eremuan zehar. Eremu horren barruan sartzen dira Kantauriko urak.*

*Horiek hala direla, 2010. urtean, OCEANA nazioarteko erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Biologoen Elkarteak, Euskal Izurde eta Baleazaleen Elkartearekin (EIBE) elkarlanean, proposamen ofizial bat aurkeztu zuten, Jaizkibel eta Ulia parean dagoen urpeko itsasgunea Natura 2000 Sarean sartzeko eta, hala, alde horren balio ekologiko eta geologikoa areagotzeko. Horren helburua da itsasgune babestuen korridore bat sortzea Txingudiko badiarekin eta Frantziako Gobernuak euskal kostalderako egindako proposamenekin. Korridore horren barruan honako hauek sartzen dira:*

*11 alde babestu biltzea: 8 Hendaia eta Biarritz*

punto de la parte resolutiva y la segunda de supresión del 2º punto de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Actualmente en la Red Natura 2000 existen numerosas carencias, sobre todo en el caso de espacios marinos en el área cantábrica, y concretamente en las aguas vascas. Compromisos internacionales obligan a todos los gobiernos a incrementar la conservación marina. Así, por ejemplo:*

*• El Convenio de Diversidad Biológica (CBD) de Naciones Unidas exige la protección de, al menos, un 10% de la superficie marina mundial.*

*• La Unión Internacional para la Conservación de la Naturaleza (UICN) pide que este porcentaje se eleve hasta el 20%-30%.*

*• La Convención para la Protección del Medio Ambiente Marino del Atlántico Nordeste (OSPAR) también exige la creación de una red de espacios marinos protegidos a lo largo de su área de aplicación, que incluye las aguas cantábricas.*

*Por todo ello, en el año 2010 la asociación internacional OCEANA y el Colegio de Biólogos de Euskadi (COBE), con la colaboración de EIBE (Euskal Izurde eta Balezaleen Elkartea), presentaron oficialmente la propuesta de inclusión del área marina sumergida frente a Jaizkibel y Ulia como parte de la red Natura 2000 para aumentar el valor ecológico y geológico de la zona, y formar así un corredor de áreas marinas protegidas con la bahía de Txingudi y las diferentes propuestas del gobierno francés para la costa vasca. Ese corredor incluye:*

*Integrar 11 zonas protegidas: 8 entre Hendaya-*

*artean eta 3 Donostia eta Hondarribia artean.*

*113 habitat eta 928 itsas espezie: 8 habitat eta 104 espezie babestu.*

*Eusko Legebiltzarrak 2011ko otsailaren 8an egindako bilkuran, 5/2011 Legez besteko Proposamena onetsi zuen, Donostia eta Biarritz artean itsas korridore ekologiko bat sortzearen inguruan.*

*“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Ingurumen, Landagune eta Itsas Ingurune Ministerioari eskatzen die azter dezatela 2011n zehar Oceana Elkarteak eta Euskadiko Biologoen Elkargoak egin duten 'Protección de la zona marina de Jaizkibel y Ulia, Euskadi. Propuesta científica para la creación de un corredor ecológico marino entre Ulia (Donostia) y Biarritz' izeneko azterlana, eta elkarlanean aritu daitezela inguru horretarako egokienak diren neurriak eta babesereduak zehaztearren, hala badagokio Natura 2000 sarean sartuz".*

*Kostaldea modu eraginkorragoan babesteko, hala nola Donostia eta Biarritz artean 27.000 hektareako itsas korridore ekologiko bat sortuz, hainbat bilera egin beharra dute arlo horretan eskumena duten administrazioek.*

*Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun*

*MOZIO ARRUNTA*

*1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari, Frantziako eta EAEko administrazioekin elkarlanean, berriro eusteko mugaz gaindiko itsas korridore ekologiko bat sortzea ere barne hartzen duen aukera analizatzeko”.*

*Biarritz y 3 entre Donosti-Hondarribia*

*113 hábitats y 928 especies marinos: 8 hábitats y 104 especies protegidos*

*En sesión celebrada en el Parlamento Vasco con fecha 8 de febrero de 2011 se aprobó la Proposición no de Ley 5/2011, relativa a la creación de un corredor marítimo ecológico entre San Sebastián y Biarritz, con arreglo al siguiente texto:*

*"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y al Ministerio de Medio Ambiente, Medio Rural y Marino a que analice durante el 2011 el estudio elaborado por la Asociación Océana y el Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi bajo el título 'Protección de la zona marina de Jaizkibel y Ulia, Euskadi. Propuesta científica para la creación de un corredor ecológico marino entre Ulia (Donostia) y Biarritz', y a trabajar conjuntamente con el objeto de determinar las medidas y figuras de protección más adecuadas para dicha zona, incluyéndola en su caso en la Red Natura 2000".*

*Al objeto de conseguir una protección eficaz de la costa desarrollando un corredor ecológico marino entre Donostia y Biarritz de 27.000 hectáreas marinas, es necesario que se lleven a cabo encuentros entre las diferentes administraciones con competencia en esta materia.*

*Por todo ello presentamos la siguiente:*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián solicita al Ministerio de Agricultura y Pesca, Alimentación y Medio Ambiente y en colaboración con las administraciones francesas y de la CAV a que retome el análisis que contemple la posibilidad de la creación de un corredor marítimo ecológico transfronterizo”.*

====================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko otsailaren 1ean.

====================================

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a uno de febrero de dos mil dieciocho.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,
Eneko Goia Laso”.

--------------

**11. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzako Institutuak dituen musikako irakasleen beharrari buruz.**

“EH Bildu udal taldeko bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du Altzako Institutuak dituen musikako irakasleen egoerari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalbatzan ordezkaritza dugun taldeok hiriko hezkuntza publikoaren eskaintzari eusteko konpromisoa adierazi dugu. Horretarako, gure hezkuntza komunitatearen eskaera eta kezka oinarridunei erantzuteko politikak sustatzen ditugu.

Abenduan jakin genuen, sindikatu baten bitartez, Donostiako Altzako Institutuan zenbait ikasle musikako irakaslerik gabe daudela eta

**11. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la necesidad de profesorado de música del Instituto de Altza.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓ ORDINARIA sobre la situación del profesorado de música del Instituto de Alza.

JUSTIFICACIÓN

Los grupos con representación en el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián hemos dado a conocer nuestro compromiso de mantener la oferta de educación pública. Por ello, promovemos políticas que presten atención a las solicitudes y preocupaciones básicas de nuestra comunidad educativa.

En diciembre, un sindicato nos informó de que en el Instituto de Alza de San Sebastián hay muchos alumnos y alumnas que no cuentan

lehenengo hiruhilekoan ikasle horiek ez dutela kalifikaziorik eraman ikasgai horretan.

con profesorado de música y que, por ello, en el primer trimestre, no han tenido calificación alguna en esa asignatura.

Altzako BHI institutu publikoa sortu zenetik, hezkuntza eskakizunak etengabe aldatu dira eta legeek, aldaketa pedagogikoak zein aurrerapen teknikoek ikastetxea bera aldarazi dute. Ikastetxeak beti erantzun die behar berri guztiei, gizarteak bezalaxe, Altzako institutua etengabeko prestakuntzan aritzen da bere zerbitzuak hobetzeko. Hori dela eta, kalitatezko hezkuntza publikoaren alde egiten dute, ikaslearen formazio integrala helburu, pertsonak garatzen saiatzen dira, ikasle ezberdinen behar ezberdinei erantzunez.

Desde que se creó en Instituto de Educación Secundaria de Alza, las demandas educativas no han cesado de cambiar, y las distintas leyes, los cambios pedagógicos y los avances técnicos han hecho que el propio centro escolar también se haya ido modificando. El centro siempre ha respondido a las nuevas necesidades que han ido surgiendo y, al igual que la sociedad, el Instituto de Alza se encuentra siempre en un proceso de formación continua para mejorar sus servicios. En este sentido, defiende la enseñanza pública de calidad, teniendo como objetivo la formación integral del alumnado, dirige sus esfuerzos a la formación de personas y responde a las diferentes necesidades de los diferentes alumnos y alumnas

Altzak biltzen duen lur-esparrua zabala eta anitza da eta, era berean, ikastetxean biltzen den ikaslegoa horrelakoxea da. Institutua, hartara, ez da ezberdina, auzoan ondo errotuta dagoela. Altzako gizarte eragile aktiboa da institutua, auzoko gazteriaren hezkuntzaz arduratzen dena beraien bizitza garatzen den tokian bertan.

El terreno ocupado por Alza es amplio y variado, y así es también el alumnado que acude a la escuela. Y el instituto tampoco es diferente, puesto que se encuentra muy enraizado en el barrio. Este instituto constituye un agente social activo de Alza, y se ocupa de la educación de la juventud del barrio en el mismo espacio en el que se desarrolla su vida.

Halaber, Altzako Institutuko hezkuntza proiektua ez dago aurrera ateratzerik, horretarako baliabiderik ez bada jartzen. Lehen hiruhilekoan hezkuntza komunitateak, gurasoek eta zuzendaritza-taldeak, konponbide bila, Lurralde Hezkuntza Ordezkaritzara jo dute eta ez dute egoera zuzentzerik lortu. Gauzak horrela, Altzako Institutuko ikasleek urtarriletik aurrera musikako kalifikaziorik gabe jarraituko dute eta ordu horiek zaintza orduak izaten jarraituko dute.

Por otro lado, el proyecto educativo del Instituto de Alza no se puede materializar, si no se ponen los recursos necesarios para ello. En el primer trimestre, la comunidad educativa, los padres y madres y el equipo de dirección se han dirigido a la Delegación Provincial de Educación en busca de una solución, pero no han conseguido resolver la situación. Así las cosas, el alumnado del Instituto de Alza va a seguir sin calificaciones desde enero, y las horas de música seguirán empleándose como horas de guardia.

Jakin badakigu hezkuntza alorreko organo

Sabemos que el órgano competente en

eskudunak –zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak– bermatu behar duela zerbitzu hori, baina Donostiako Udalak ere babestu behar ditu hiritarren interes eta eskubideak. Halaber, bistakoa da tartean dauden erakundeek eta hezkuntza komunitateak elkarrekin lan egin behar dutela, Altzako Institutuaren eskaera legitimoak erantzuna izan dezan. Horrexegatik, hauxe da gure MOZIO ARRUNTA:

educación, es decir el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, es quien debe garantizar ese servicio, pero también el Ayuntamiento de San Sebastián debe proteger los intereses y derechos de la ciudadanía. Resulta también evidente que las instituciones que tienen que ver con esa cuestión y la comunidad educativa deben trabajar juntos, para que la solicitud legítima del Instituto de Alza obtenga una respuesta. Por todo ello, presentamos la siguiente MOCIÓN ORDINARIA:

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Altzako Institutuko eskola komunitatearekin lankidetzan jardun dezala, auzoan kalitatezko hezkuntza zerbitzu publikoa bermatzeko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que colabore con la comunidad escolar del Instituto de Alza, con el objetivo de garantizar un servicio público de educación de calidad en el barrio.

2. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta azkarren Altzako Institutuak dituen musika irakasleen beharra asetzeko, geratzen diren hilabeteotan ikasleek musikako kalifikazioa izan dezaten.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que dé respuesta, lo antes posible, a la necesidad de profesorado de música que tiene el Instituto de Alza, para que, en los meses restantes, el alumnado cuente con la calificación correspondiente en la asignatura de música.

3. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hirian kalitatezko hezkuntza publikoa bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak jarri eta murrizketa politiketatik at utz ditzala.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que ponga los recursos necesarios para garantizar una educación pública de calidad en nuestra ciudad, dejándolos al margen de las políticas de restricción.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 5ean

San Sebastián, 5 de enero de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Miren Albistur Garmendia parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Naiara Sampedro Pérez, D.ª Amaia Martín Garín, D.ª María Luisa García Gurruchaga, D.ª Miren Azkarate Villar y D.ª Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**IRABAZI DONOSTIA TALDEAK AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI DONOSTIA:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADA.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.** |
| **ABSTENTZIOAK: 0.** | **ABSTENCIONES: 0.** |

**EAJ-PNV, PSE-EE ETA PP TALDEEK AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV, PSE-EE Y PP:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **ONARTUA.** | **APROBADA.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU, (3) PP.** | **VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU, (3) PP.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 0.** | **VOTOS EN CONTRA: 0.** |
| **ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.** | **ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.** |

**EAJ-PNV, PSE-EE ETA PP TALDEEK AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV, PSE-EE Y PP:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **ONARTUA.** | **APROBADA.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU, (3) PP.** | **VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU, (3) PP.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 0.** | **VOTOS EN CONTRA: 0.** |
| **ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.** | **ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.** |

**EAJ-PNV, PSE-EE ETA PP TALDEEK AURKEZTUTAKO 3. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 3 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV, PSE-EE Y PP:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**11. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bostean izan zuen ohiko osoko bilkuran, EH BILDU taldeak Altzako Institutuko musikako irakasle-beharren gainean aurkeztutako Mozio Arrunta onartu zuen, egin zitzaizkion hiru zuzenketarekin batera. EAJ eta PSE-EE taldeek elkarrekin aurkeztu zituzten zuzenketak: lehenengo biak, erabaki zatiko 1. eta 2. puntuak aldatzeko, eta hirugarrena, erabaki zatiko 3. puntua kentzeko. Hauxe da azkenean onartu zen testua:

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinticinco de enero de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo EH BILDU sobre las necesidades de profesorado de música del Instituto de Alza, que incorpora 3 enmiendas presentadas conjuntamente por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, las dos primeras de modificación de los puntos 1º y 2º de la parte resolutiva y la tercera de supresión del 3.er punto de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Donostiako Udalbatzan ordezkaritza dugun taldeok hiriko hezkuntza publikoaren eskaintzari*

*“Los grupos con representación en el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián hemos dado a*

*eusteko konpromisoa adierazi dugu. Horretarako, gure hezkuntza komunitatearen eskaera eta kezka oinarridunei erantzuteko politikak sustatzen ditugu.*

*conocer nuestro compromiso de mantener la oferta de educación pública. Por ello, promovemos políticas que presten atención a las solicitudes y preocupaciones básicas de nuestra comunidad educativa.*

*Abenduan jakin genuen, sindikatu baten bitartez, Donostiako Altzako Institutuan zenbait ikasle musikako irakaslerik gabe daudela eta lehenengo hiruhilekoan ikasle horiek ez dutela kalifikaziorik eraman ikasgai horretan.*

*En diciembre, un sindicato nos informó de que en el Instituto de Alza de San Sebastián hay muchos alumnos y alumnas que no cuentan con profesorado de música y que, por ello, en el primer trimestre, no han tenido calificación alguna en esa asignatura.*

*Altzako BHI institutu publikoa sortu zenetik, hezkuntza eskakizunak etengabe aldatu dira eta legeek, aldaketa pedagogikoak zein aurrerapen teknikoek ikastetxea bera aldarazi dute. Ikastetxeak beti erantzun die behar berri guztiei, gizarteak bezalaxe, Altzako institutua etengabeko prestakuntzan aritzen da bere zerbitzuak hobetzeko. Hori dela eta, kalitatezko hezkuntza publikoaren alde egiten dute, ikaslearen formazio integrala helburu, pertsonak garatzen saiatzen dira, ikasle ezberdinen behar ezberdinei erantzunez.*

*Desde que se creó en Instituto de Educación Secundaria de Alza, las demandas educativas no han cesado de cambiar, y las distintas leyes, los cambios pedagógicos y los avances técnicos han hecho que el propio centro escolar también se haya ido modificando. El centro siempre ha respondido a las nuevas necesidades que han ido surgiendo y, al igual que la sociedad, el Instituto de Alza se encuentra siempre en un proceso de formación continua para mejorar sus servicios. En este sentido, defiende la enseñanza pública de calidad, teniendo como objetivo la formación integral del alumnado, dirige sus esfuerzos a la formación de personas y responde a las diferentes necesidades de los diferentes alumnos y alumnas*

*Altzak biltzen duen lur-esparrua zabala eta anitza da eta, era berean, ikastetxean biltzen den ikaslegoa horrelakoxea da. Institutua, hartara, ez da ezberdina, auzoan ondo errotuta dagoela. Altzako gizarte eragile aktiboa da institutua, auzoko gazteriaren hezkuntzaz arduratzen dena beraien bizitza garatzen den tokian bertan.*

*El terreno ocupado por Alza es amplio y variado, y así es también el alumnado que acude a la escuela. Y el instituto tampoco es diferente, puesto que se encuentra muy enraizado en el barrio. Este instituto constituye un agente social activo de Alza, y se ocupa de la educación de la juventud del barrio en el mismo espacio en el que se desarrolla su vida.*

*Halaber, Altzako Institutuko hezkuntza proiektua ez dago aurrera ateratzerik, horretarako baliabiderik ez bada jartzen. Lehen hiruhilekoan hezkuntza komunitateak, gurasoek eta zuzendaritza-taldeak, konponbide bila, Lurralde*

*Por otro lado, el proyecto educativo del Instituto de Alza no se puede materializar, si no se ponen los recursos necesarios para ello. En el primer trimestre, la comunidad educativa, los padres y madres y el equipo de dirección se*

*Hezkuntza Ordezkaritzara jo dute eta ez dute egoera zuzentzerik lortu. Gauzak horrela, Altzako Institutuko ikasleek urtarriletik aurrera musikako kalifikaziorik gabe jarraituko dute eta ordu horiek zaintza orduak izaten jarraituko dute.*

*han dirigido a la Delegación Provincial de Educación en busca de una solución, pero no han conseguido resolver la situación. Así las cosas, el alumnado del Instituto de Alza va a seguir sin calificaciones desde enero, y las horas de música seguirán empleándose como horas de guardia.*

*Jakin badakigu hezkuntza alorreko organo eskudunak –zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak– bermatu behar duela zerbitzu hori, baina Donostiako Udalak ere babestu behar ditu hiritarren interes eta eskubideak. Halaber, bistakoa da tartean dauden erakundeek eta hezkuntza komunitateak elkarrekin lan egin behar dutela, Altzako Institutuaren eskaera legitimoak erantzuna izan dezan. Horrexegatik, hauxe da gure MOZIO ARRUNTA:*

*Sabemos que el órgano competente en educación, es decir el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, es quien debe garantizar ese servicio, pero también el Ayuntamiento de San Sebastián debe proteger los intereses y derechos de la ciudadanía. Resulta también evidente que las instituciones que tienen que ver con esa cuestión y la comunidad educativa deben trabajar juntos, para que la solicitud legítima del Instituto de Alza obtenga una respuesta. Por todo ello, presentamos la siguiente MOCIÓN ORDINARIA:*

*1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Altzako Institutuko eskola komunitatearekin lankidetzan jarduten jarrai dezala, auzoan kalitatezko hezkuntza zerbitzu publikoa bermatzeko.*

*1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que continúe colaborando con la comunidad escolar del Instituto de Alza, con el objetivo de garantizar un servicio público de educación de calidad en el barrio.*

*2. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskari bat egiten dio, Altzako Institutuak musika irakasle batek irakastaldiaren heren baterako izateko beharra asetzeko, musika curriculuma behar bezala lantzea bermatu ahal izateko”. ====================================*

*2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que dé respuesta a la necesidad de un profesor de música con un tercio de jornada lectiva que tiene el Instituto de Altza, para que se pueda asegurar el correcto desarrollo del currículum escolar de música”. ====================================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko otsailaren 1ean.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a uno de febrero de dos mil dieciocho.

ALKATEAK O. E. /

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”.

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

1. eta 15. kontrol mozioak batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control n.º 1 y n.º 15.

**II.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Donostia Arena 2016-Ilunbe zentroko erabilera dela-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko urtarrilaren 15ean Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2013an Udal Gobernuak Ilunbe alokatzeko atera zituen baldintzak direla-eta izan zen auziari dagokion epaia berriki eman du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak. Argi geratu da orduan egindakoa legezkoa zela. Alegia, Donostia Arena 2016-Ilunbe zentroko erabilera anitzeko aretoari zezenketak egitea ez diren beste erabilera batzuk ematea legezkoa dela. Erabilera horietan sakontzea egun helburu

**II.2.1. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la utilización del centro Donostia Arena Illunbe.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Hacienda el pasado 15 de enero de 2018.

JUSTIFICACIÓN

El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha dictado recientemente sentencia sobre el contencioso relativo a las condiciones establecidas por el Gobierno Municipal en 2013 para el alquiler de Illunbe. Ha quedado claro que las actuaciones llevadas a cabo en su momento eran legales. Es decir, que es legal dar al espacio de usos múltiples del centro Donostia Arena 2016-Illunbe otros usos

konpartitutzat jo daiteke, iazko urriaren 26an Udalbatzak aho batez onartu baitzuen Udal Gobernuak, kirol eta kultur eragileekin batera, Ilunbe erabilpen askotarako gune izateko proiektua landu behar duela.

diferentes a la realización de corridas de toros. Además, profundizar en esos usos se puede entender actualmente como un objetivo compartido, puesto que, el 26 de octubre del año pasado, el Pleno decidió por unanimidad que el Gobierno Municipal, junto con los agentes deportivos y culturales, elaboraran un proyecto para que Illunbe se convirtiera en un centro de usos múltiples.

Azkenaldiko ibilbideak erakutsi du aurreko Udal Gobernuaren jokabidea zilegia zela; izan ere, egungo Udal Gobernuak kontrako erabakiak hartu dituenez, 2016an ia 9.000 donostiarrek kontsulta egiteko eskaera formalizatu zuten. Eta iaz Udaleko Estrategia Bulegoak egindako inkestaren arabera, donostiarren %71 udal instalazioetan zezenketak egitearen kontra dago.

Los últimos hechos han puesto de manifiesto que la actuación del anterior Gobierno Municipal fue lícita. Como el actual Gobierno Municipal adoptó posturas contrarias a esa actuación, en 2016 9.000 donostiarras formalizaron una solicitud de consulta. Y según la encuesta realizada el año pasado por la Oficina de Estrategia del Ayuntamiento, el 71% de los y las donostiarras está en contra de que se realicen corridas de toros en las instalaciones municipales.

Aurrekoak horrela, donostiarrek iragarri duten nahiarekiko koherentziaz jokatze aldera, Udal Gobernuak erabaki dezake gaiari buruzko kontsulta egiten duen bitartean nolabaiteko moratoria egitea eta, arestian aipatu bezala, Donostia Arena 2016-Ilunbe zentroko erabilera anitzeko aretoari zezenketak egitea ez diren beste erabilera batzuk ematea. Batzordean entzundakoaren arabera, alkatearen iritziz, aldiz, aurten ere zezenketak egitea “Donostia Arena 2016-Ilunbe” zentroko erabilera anitzeko aretoaren erabilera ez dago aurreko guztiaren kontra.

Así las cosas, para ser coherente con el deseo expresado por las y los donostiarras, el Gobierno Municipal podría decidir establecer una moratoria mientras se realiza la consulta sobre el tema y, tal como venimos diciendo, dar al espacio de usos múltiples del centro Donostia Arena 2016-Illunbe otros usos diferentes a la celebración de corridas de toros. Sin embargo, según lo manifestado en la comisión, en opinión del alcalde, el que también este año se celebren corridas de toros en el espacio de usos múltiples del centro Donostia Arena 2016-Illunbe no es contradictorio con todo lo que acabamos de explicar.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

Donostiako Udalbatzak eskatzen die alkateari eta Udal Gobernuari, Udalbatzak 2017ko apirilaren 27an eta urriaren 26an hartu zituen

El Pleno del Ayuntamiento insta al alcalde y al Gobierno Municipal a que no se dé curso a la celebración de corridas de toros en el pabellón

erabakiak exekutatzen dituen bitartean, alegia eta hurrenez hurren, gai honi dagokionez donostiarren iritzia-jasotzea martxan jartzen duen bitartean eta “Donostia Arena 2016-Ilunbe” zentroko erabilera anitza hobetzeko proiektua bukatzen duen bitartean, bertan zezenketarik ez bideratzeko.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 18an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

“San Sebastián / Donostia Arena 2016-Illunbe”, hasta que se ejecuten las decisiones que el Pleno adoptó los días 27 de abril y 26 de octubre de 2017, es decir y respectivamente, hasta que se inicien los trámites necesarios para recabar la opinión de los y las donostiarras en lo que atañe a esta cuestión y hasta que finalice el proyecto para mejorar el pabellón como centro multiusos.

San Sebastián, 18 de enero de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
Concejala del grupo municipal EH BILDU”.

**II.2.15. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, Ilunberen erabilera dela eta.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa hil honetako Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean EAEANk Ilunberen erabilerei buruz emandako epaiari buruzko interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Urte amaieran jakin genuen Tokiko Gobernu Batzordeak 2013/13/27an egindako akordioaren aurka udal hautetsien ordezkariek aurkeztutako errekurtsoari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren berri. Akordio hark Donostia Arena 2016-Ilunbe guneko erabilera anitzeko pabiloiko ekintza, ekitaldi eta jardueren antolaketa, kudeaketa eta ustiapenerako eskubideak esleitzeko baldintza pleguak onartu zituen, eta espazio horretan animalien aurkako tratu txarrarekin lotutako jarduerak eragotzi dituen.

**II.2.15. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre los usos de Illumbe.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Servicios a las Personas del presente mes, en relación con la sentencia del TSJPV sobre los usos de Illumbe.

JUSTIFICACIÓN

A finales de año, hemos tenido conocimiento de la sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en relación al recurso presentado por representantes electos municipales, contra el acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 27/13/2013 de aprobación del pliego de condiciones de adjudicación de derechos de organización, gestión y explotación de eventos, actos y actividades del pabellón multiusos del complejo San Sebastián-Donostia Arena 2016-Illunbe, por el que se excluían actividades que supusieran maltrato animal de los usos destinados a ese espacio.

Aipatutako epaiak argi utzi zuen "akordioak, beren eskumenaren arloan, udal pabiloiaren erabilerak zehaztera mugatzen zirela, animalien tratu txarrak eragiten zituzten erabilerak kanpo utzirik, eta kultura, arte, musika eta kirol arloko eskaintza zilegitasunez sustatuz"; horrenbestez, ez zuen inolaz ere debekatzen hirian zezen ikuskizunak egitea, kontu hori udalaren eskumenetik at baitago.

La citada sentencia deja claro que "los acuerdos se limitaban a establecer, dentro de su competencia, los usos a que se adscribía el pabellón municipal, con excepción de los usos que impliquen maltrato animal, y promoviendo lícitamente la oferta cultural, artística, musical y deportiva", por lo que en ningún caso se prohibía la celebración de espectáculos taurinos en la ciudad, cuestión fuera de las competencias municipales.

Finean, EAEANk ebatzi zuen Udalak eskumena duela bere jabetzako eraikin bati zer erabilera eman erabakitzeko, eta berretsi zuen ez zirela lehia librearen eta enpresa askatasunaren printzipioak urratu.

En definitiva, el TSJPV dictamina que el Ayuntamiento es el competente para decidir qué usos quiere dar a un edificio que es de su propiedad, y ratifica que no se vulneraron los principios de libre concurrencia y libertad de empresa.

Batzordean, Goia alkateak adierazi zuen tauromakia legezko jarduera dela eta Udalak ezin duela debekatu, baina EAEANk argi dioela honako hau: "zilegi da pabiloiaren erabilerak determinatzea, eta hiritarrek ez dute erabilera jakin bat eskatzeko eskubiderik, udal autonomiari jarraituz Udalak duelako ahalmen hori; jardun hori ez da indarrez kaltetuko edo baldintzatuko hiritarren iritziaren eraginez eta ez da epaitegien egokitasun irizpideez ordezkatuko".

En la comisión, el alcalde, Sr. Goia, manifestó que la tauromaquia es una actividad legal, y que el ayuntamiento no puede prohibirla, si bien la sentencia del TSJPV deja claro que: "es lícita la determinación de los usos del pabellón y los ciudadanos no tienen derecho a exigir uno determinado, correspondiéndole al Ayuntamiento esa facultad en base a la autonomía municipal, sin que su ejercicio pueda quedar menoscabado o condicionado forzosamente por la opinión ciudadana ni sustituido por criterio de oportunidad de los Tribunales".

Era berean, gogora ekarriko dugu hiritarren pertzepzioaren azken inkestaren arabera Donostiako hiritarren % 71 udal baliabide eta instalazioak zezen korridak ospatzeko erabiltzearen aurka dagoela, eta Donostia Antitaurina Orain plataformak 10.000 sinadura bildu zituela hirian gai horri buruzko galdeketa bat egiteko. Azpimarratuko dugu inkestan ez zela galdetu hirian tauromakia debekatzeari buruz, udal baliabide eta instalazioen erabilerei buruz baizik. Hala, ulertzen dugu EAEANren epaiak berresten duela Udalari soilik dagokiola

Asimismo, cabe recordar que según la última encuesta de percepción ciudadana, un 71% de los y las donostiarras está en contra de destinar recursos o instalaciones municipales para la celebración de corridas de toros, y que la plataforma Donostia Antitaurina Orain recogió 10.000 firmas para la realización de una consulta en la ciudad sobre la misma cuestión. Insistimos en que en la encuesta no se preguntó sobre la prohibición de la tauromaquia en la ciudad, sino por los usos de los recursos o instalaciones municipales, por lo

erabaki hori hartzea, baina horrek ez duela galarazten erabakia hartzeko hiritarrei iritzia eskatzea.

que entendemos que la sentencia del TSJPV ratifica que el competente para tomar esa decisión es exclusivamente el Ayuntamiento, lo que no impide que para tomarla se consulte a la ciudadanía.

Zezen plazaren erabilerei dagokienez, Udal Gobernuak publikoki adierazi du instalazioak hobetzea ere pentsatzen ari dela, espazio horretan beste kultur eta kirol ekitaldi batzuk ospatu ahal izateko. Hobekuntzen artean dago, adibidez, zezen plazako hondarra hormigoiz edo beste material batzuez ordezkatzea, urte osoan erabili ahal izateko. Plazaren mantenuak bostehun mila euroko gastua du urtero, eta beraz, jarduera gehiago izateak diru sarrerak ere gehituko lituzke.

En relación con los usos de la plaza de toros, el gobierno municipal también ha hecho público que está pensando en mejorar las instalaciones para que este espacio pueda albergar otros eventos culturales o deportivos, como por ejemplo sustituir la arena del coso por hormigón u otros materiales que faciliten otros usos durante todo el año. El mantenimiento de la plaza supone quinientos mil euros anuales a las arcas municipales, por lo que el aumento de su actividad también supondría un aumento de los ingresos.

Horregatik guztiagatik, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, udal autonomiari jarraituz, muga ditzala animalien tratu etikoa bermatzen ez duten jarduerak udal instalazioetan.

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que, de acuerdo con la autonomía municipal, limite los usos de actividades que no garanticen un trato ético a los animales en las instalaciones municipales.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio jakinaraz diezaiela udal taldeei Ilunbeko zezen plazaren urte osoko erabilera sustatzeko egitea aurreikusten diren erreformei buruz.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que informe a los grupos municipales de las reformas que está valorando llevar a cabo en la plaza de toros de Illunbe para facilitar el uso de este espacio durante todo el año.

Donostia, 2017ko urtarrilaren 19a

Donostia a 19 de enero de 2018

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Alkate-Udalburuak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/las señores/as D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D.ª Amaia Martín Garín, D. Ernesto Gasco Gonzalo, Alcalde-Presidente y D.ª Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**1.GO KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**HALA ESKATU DUTENEZ, 15. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:**

**15. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**15. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Aiete eta Parte Zaharreko anbulategi berriak direla-eta.**

"Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, anbulategi berriak direla-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko urtarrilaren 15eko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Alkateak aurtengo erronkak adierazi zituenean, besteak beste, anbulategi berrien obrak noiz hasiko diren ez zuen aipatu. Arraindegiko obrak aurten hasiko direla iragarri zuen, baina Udalak eraikina berreskuratu zuenetik bi urte eta erdi joan dira dagoeneko, eta oraindik ere ez dakigu noiz hasiko diren anbulategia egiteko obrak.

Aieten Udal Gobernu honekin egoera okertuz joan da. Osakidetzari lur saila lagatzeko urtebete behar izan zuten, eta atzerapenak direla-eta aurten ere ez dira hasiko obrak.

Gogorarazi behar da, aurreko agintaldian, Udalak Bretxako Arraindegi eraikina

**II.2.2. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre los ambulatorios de Aiete y Parte Vieja.**

"Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene a bien presentar la siguiente MOCIÓN, para su tratamiento en pleno, consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios para la Personas celebrada el pasado 15 de enero de 2018 sobre los nuevos ambulatorios.

JUSTIFICACIÓN

Cuando el alcalde dio a conocer los retos de este año, no especificó cuándo comenzarían las obras de los nuevos ambulatorios. Anunció que las obras de Pescadería comenzarían este año, pero hay que tener en cuenta que ya han pasado dos años y medio desde que el Ayuntamiento recuperó el edificio y todavía no sabemos en qué momento concreto se comenzará a construir el ambulatorio que se situará en él.

Por otro lado, en Aiete, la situación ha ido empeorando con este Gobierno Municipal. Tuvo que pasar un año para que cedieran la parcela a Osakidetza y, debido a algunos retrasos, las obras tampoco comenzarán este año.

Hemos de recordar que durante la legislatura anterior el Ayuntamiento recuperó el edificio de

berreskuratu zuela eta hari esker, Osakidetzari lehen lagapena egin zitzaiola 2015eko maiatzean. Orduz geroztik, bi urte eta erdian, ez da aurrerapausorik eman. Eta gaur egun, plan bereziari egindako alegazioak direla-eta, eta ez delako kudeaketa egokia egin, beldur gara ez ote den are gehiago atzeratuko. Aieteri dagokionez, aurreko agintaldian, anbulategia jartzeko lursaila aukeratu zen: ez zen prozesu batere erraza izan eta gainera, auzotarren eskutik egin zen (eta lursail honen metro batzuk Udalaren izenean jabetzaren erregistroan jartzeko bidea ere eginez).

Honegatik guztiarengatik, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Aieteko eta Parte Zaharreko osasun-etxeak lehenbailehen gauzatzeko eman beharreko pausoak eman ditzala, donostiarren lehentasun nagusietako bat dira-eta.

2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Parte Zahar eta Erdialdeko eta Aieteko auzotarrekin bilerak egin ditzala, osasun etxeei buruzko informazioa helaraz diezaien.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 18an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

la Pescadería de la Bretxa y que, gracias a ello, en mayo de 2015 se procedió a realizar una primera cesión a Osakidetza. Desde entonces, y ya han transcurrido dos años y medio, no se han producido avances. Actualmente, debido a las alegaciones presentadas al plan especial, y también porque no se ha realizado una gestión adecuada, nos tememos que el tema se retrasará aún más. En cuanto al ambulatorio de Aiete, hemos de señalar que en la legislatura anterior se seleccionó la parcela para su ubicación. No fue un proceso sencillo, y se realizó de la mano de los y las vecinas del barrio. Asimismo, se realizaron los trámites para inscribir algunos metros de aquella parcela a nombre del Ayuntamiento en el Registro de la Propiedad.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que dé los pasos necesarios para implantar los centros de salud de Aiete y Parte Vieja lo más rápidamente posible, ya que constituyen una de las principales prioridades de los y las donostiarras.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que se reúna con los y las vecinos de Parte Vieja-Centro y Aiete a fin de proporcionarles información relativa a los citados centros de salud.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 18an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, 28. linean BRT sistemaren alde pausoak ematea dela eta.**

"Ayem Oskoz Urrutikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko urtarrilaren 15ean Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Bus Express edo Bus Rapid Transit-a (BRT) Brasilen lehen aldiz martxan jarri zen eta diseinu, zerbitzu eta azpiegitura bereziak dituen garraio publikorako autobus sistema bat da eta, Europan ere, mugikortasun iraunkor eredu berri baten sinbolo bilakatzen ari da. Besteak beste, bidaiari gaitasun handiak, maiztasun altuek, fidagarritasun eta puntualtasunak, lehentasun semaforikoak, errei propioek edo-eta txartela balidatzeko azpiegitura duten geltoki irisgarriek ezaugarritzen dute sistema hori. Hain zuzen, tranbiaren eta metroaren gaitasun eta azkartasuna izateko, baina autobus arrunten kostu baxu eta sinpletasunarekin.

**II.2.4. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el sistema de autobús eléctrico de la linea 28.**

"Ayem Oskoz Urrutikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La moción trae causa de la interpelación sustanciada el 15 de enero de 2017 ante la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

El sistema Bus Express o Bus Rapid Transit (BRT) se puso en marcha por primera vez en Brasil. Se trata de un sistema de autobuses para el transporte público que tiene un diseño, unos servicios y unas infraestructuras especiales y que, en la actualidad, se está convirtiendo en el símbolo de un nuevo modelo de movilidad sostenible también en Europa. Entre las características más importantes de este nuevo sistema podemos citar las siguientes: gran capacidad de transporte de viajeros y viajeras, altas frecuencias, fiabilidad y puntualidad, prioridades semafóricas, carriles propios y estaciones accesibles que disponen de infraestructuras para validar las tarjetas de transporte. Dicho de otro modo, se trata de un

sistema que tiene la capacidad y la velocidad del tranvía y el metro, pero el bajo coste y la simplicidad de los sistemas comunes de autobús.

Donostian 2016an hainbatetan hitz egin zen gure 28. linea elektrifikatze aldera pausoak emateaz; esaterako, Donostiako Tranbia Konpainiaren Administrazio Kontseiluan, Donostiako lehen BRT elektrifikatu bilakatzeko proiektu zirriborroa aurkeztu zitzaigun. Udal Gobernutik adierazi zitzaigun Eusko Jaurlaritza, Donostiako Udala eta DBusen artean lantzen ari zela proiektua, hitzarmen bat sinatzeko helburua zegoela eta europar finantzaketa lortzeko asmoa ere bazutela; baina edozein kasutan, BRT lerroa dBusen ardurapean geratuko zela.

En San Sebastián, durante el 2016 se habló en varias ocasiones de dar pasos para avanzar en la electrificación de la línea 28. Por poner un ejemplo, en el Consejo de Administración de la Compañía del Tranvía de San Sebastián, se nos presentó un borrador de proyecto para implantar la primera BRT electrificada en nuestra ciudad. El Gobierno Municipal explicó que se trataba de un proyecto que se estaba elaborando entre el Ayuntamiento de San Sebastián y dBus, que pretendían suscribir un convenio, así como conseguir financiación europea, pero que, en cualquier caso, la línea BRT sería responsabilidad de dBus.

Komunikabideetan irakurri genuen 2017ko abenduaren 14an, eta aurretik azaroaren 2an, Eusko Jaurlaritzak, Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak hitzarmen bat sinatu dutela: Gasteizko bigarren lerroa edo lerro periferikoa (24 geltoki) BRT lerro elektrifikatu bilakatzeko proiektua proposatu dutela.

Según hemos sabido por los medios de comunicación, el 14 de diciembre de 2017 y, anteriormente, el 2 de noviembre, el Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la Diputación Foral de Álava suscribieron un convenio, con el objetivo de elaborar un proyecto para convertir la segunda línea de Vitoria-Gasteiz, o línea periférica (con 24 paradas), en una línea electrificada BRT.

Horrez gain, urtarrilaren hasieran jakin genuen Donostiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat sinatzea bilatuko duela, elektrifikazioan aurrerapausoak emanez.

Por otra parte, a comienzos de enero hemos tenido conocimiento de que el Ayuntamiento de San Sebastián pretende suscribir un convenio con la Diputación Foral de Gipuzkoa y con el Gobierno Vasco para dar pasos hacia la electrificación.

Donostiako EH Bilduk oso positiboki baloratzen du 28. BRT lerro elektrifikatuaren proiektua eta garraio-sistema mota hau Donostiako eta metropoliko mugikortasunaren zutabeetako bat bilaka daitekeela uste dugu. Are gehiago, 2018ko urtarrilaren 15ko batzordeetan, gaiaz interpelatuta, Gobernutik

EH Bildu de San Sebastián valora muy positivamente el proyecto de convertir la línea 28 en una línea electrificada BRT y consideramos que este sistema de transporte se puede convertir en uno de los pilares de la movilidad de San Sebastián y de su metrópoli. Es más, en contestación a una interpelación

adierazi zitzaigun 28. BRT lerro elektrifikatuaren proiektua nahi baino mantsoago doala aurrera eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin sinatutakoa ez dela hitzarmena, baizik eta protokolo bat dela, eta protokolo honek gerora beste hainbat aspektu garatzea ahalbidetuko duela.

que presentamos en las comisiones del 15 de enero del 2018, el Gobierno Municipal manifestó que el proyecto de convertir la línea 28 en una línea electrificada BRT va más lento de lo deseado y que lo que se ha suscrito con la Diputación Foral de Gipuzkoa y con el Gobierno Vasco no es un convenio sino un protocolo que permitirá desarrollar en el futuro otros muchos aspectos.

Ondo baloratzen dugu dBusek eta Mugikortasuneko Departamenduak BRT lerro elektrifikatua garatzeko beharrezko alorretan lanean jarraitzea, baina 28. lerroa kalitatezko BRT elektrifikatu bilakatu nahi badugu, ezinbestekoa da Udalak Eusko Jaurlaritzarekin konpromiso errealak ixtea, proiektuaren garapen eta finantzaketari dagokionez. Hain zuzen, Gasteizen egitekoa den antzera, non Udalak eta TUVISAk Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa lortu duten Arabako hiriburuko periferiako BRT lerroaren garapenerako; zehazki, proiektuaren %65 finantzatzeko prestutasuna eta 2018an 10 milioi euroko aurrekontu plurianuala txertatzeko konpromisoa. Zentzu honetan, ikusita Donostiak ezin duela atzean gelditu, ikusita ez dBusek eta ez Udalak ezin dutela horrelako inbertsioa beren gain hartu eta ikusita Eusko Jaurlaritzak B.R.T.-ekin Gasteizen erakutsi duen inplikazioa, uste dugu Donostiarako ere inplikazio bera lortu behar dugula.

Valoramos positivamente que dBus y el Departamento de Movilidad sigan trabajando en aquellos ámbitos que resulten necesarios para el desarrollo de la línea electrificada BRT, pero, si queremos que la línea 28 sea una línea BRT de calidad, es imprescindible que el Ayuntamiento cierre compromisos reales con el Gobierno Vasco con respecto al desarrollo y a la financiación del proyecto. Un compromiso parecido al que se ha alcanzado en Vitoria-Gasteiz, donde el Ayuntamiento y TUVISA han conseguido la implicación del Gobierno Vasco para el desarrollo de la línea BRT en la periferia de la capital alavesa; y es que el ejecutivo vasco ha mostrado su disposición de financiar el 65 % del proyecto y ha adoptado el compromiso de incorporar en el 2018 un presupuesto plurianual de 10 millones de euros. En este sentido, teniendo en cuenta que San Sebastián no puede quedar atrás, que ni dBus ni el Ayuntamiento pueden asumir una inversión tan elevada y que el Gobierno Vasco ha mostrado una gran implicación en Vitoria-Gasteiz para la implantación de la línea BRT, consideramos que debemos obtener la misma implicación también para San Sebastián.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Udalak eta Donostiako Tranbia

1.- El Pleno solicita al Gobierno Municipal que el Ayuntamiento de San Sebastián y la

Konpainiak Eusko Jaurlaritzarekin Bus Express edo BRT elektrifikatuaren proiektua gauzatzeko protokoloa lehenbailehen sinatu eta harekin elkar-finantziazio hitzarmenak ere sinatzeko pausoak eman ditzala.

Compañía del Tranvía de San Sebastián suscriban, a la mayor brevedad posible, el protocolo para la ejecución del proyecto Bus Express o BRT electrificada con el Gobierno Vasco y que dé los pasos precisos para alcanzar con dicha institución los convenios de cofinanciación necesarios.

Donostian, 2018ko Urtarrilaren 18an

En San Sebastián, a 8 de enero de 2018

Ayem Oskoz Urrutikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Ayem Oskoz Urrutikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, D. Loïc Alejandro, D.ª Pilar Arana Pérez y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, EAEko kongresu banaketari buruzkoa.**

"Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, EAEko kongresu banaketari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko urtarrilaren 15ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

**II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la distribución de congresos de la CAV.**

"Josu Mirena Ruiz Martín, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene a bien presentar la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, relativa al reparto de congresos en la CAV, para su tratamiento en Pleno, a consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios para las Personas en la reunión celebrada el pasado 15 de enero de 2018.

JUSTIFIKAZIOA

Denok badakigu kongresuek gure hirian garrantzi handia dutela, bai ekonomikoki bai hiri posizionamendu modura. Hau oinarri hartuta, Donostiako Estrategia Bulegoa, aurreko legegintzaldian, EAEko kongresuen bilakaera aztertzen hasi zen. Bere lehenengo lanean, 2012an, Eusko Jaurlaritzak Bilboren aldeko apustua egiten zuela nahiko argi geratu zen. Hori dela eta, eta datuen lorpena benetan zaila dela kontuan harturik, ikerketa berri bat martxan jarri zen, oraingo honetan 2013-2014 urteak elkarrekin aztertuz. Hori dela eta, 2015ean ikerketa hau aurkeztu zen eta hautsak harrotu zituen.

Iazko ekainean talde honek aurkeztutako mozioaren lehen puntua onartu zuen Udalbatzak. Honela zioen: "EAEn kongresuen banaketen txostena (2015-16) lehenbailehen abiaraz dezala, hauen bilakaera jakin dezagun."

Irailean berriro ere beste kontrol mozio bat aurkeztu genuen, eta aho batez Udalbatzak hau onartu zuen.

"1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio EAEko kongresuen banaketari buruzko txostenak eta informazioak garaiz landu eta buka ditzala, Udalak modu egokian egin ditzan egin beharreko ebaluazioak.

2.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, EAEko kongresuen banaketari

JUSTIFICACIÓN

Todos somos conscientes de la importancia que tienen los congresos para nuestra ciudad, tanto en el plano económico como en el del posicionamiento de la ciudad. Partiendo de esta base, en la legislatura anterior, la Oficina de Estrategia de San Sebastián comenzó a analizar la evolución de los congresos celebrados en la Comunidad Autónoma Vasca. Su primer trabajo, realizado en 2012, dejaba bastante claro que el Gobierno Vasco apostaba por Bilbao. Posteriormente, y teniendo en cuenta la dificultad para obtener datos sobre esta cuestión, se puso en marcha una nuevo estudio, relativo al período 2013-2014. Así, en 2015 se presentaron los resultados de dicho estudio, los cuales suscitaron una gran polémica.

En junio del año pasado, el Pleno del Ayuntamiento aprobó el primer punto de una moción presentada por nuestro grupo, que decía lo siguiente: “El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que ponga en marcha cuanto antes el informe sobre la distribución de congresos en la CAV en 2015 y en 2016, para que tengamos conocimiento cuanto antes de la evolución.”

En septiembre volvimos a presentar otra moción de control, que fue aprobada por el Pleno por unanimidad.

"1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que trabaje y concluya a tiempo los informes y las informaciones referentes al reparto de congresos de la CAV, a fin de que el Ayuntamiento pueda realizar de manera adecuada las evaluaciones pertinentes.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, una vez elaborado

buruzko 2015-2016ko txostena bukatuta dagoenean, lehenbailehen udal taldeak bilera batera dei ditzala bertako edukiak azter ditzagun."

Alkateak, debate hartan, urriaren 30ean lana bukatuta egongo zela adierazi zigun.

Batzordearen urtarrileko bilkuran, alkateak txostena egina zegoela eta banatuko zuela esan zigun; 2016an kongresu kopurua handitu zela ere gaineratu zuen. Susmoa dugu interpelazioa aurkeztu ez bagenu ez zela astelehenean bertan txostena banatuko. Datuak benetan kezkagarriak dira. Eta txostena EH Bilduk interpelazioa egin ondoren helarazi zaigun arren, ez da inongo aurkezpenik egin, ez dakigu zein ebaluazio egiten duen Udal Gobernuak, udal taldeok ere ez dugu izan geure irakurketa egiteko aukera, hau dena bideratzeko Udal Gobernuak ez du inongo borondaterik azaldu... Eta aurkezpen hori eta azterketa sakon bat egitea ezinbestekoa dela uste dugu. Datuak kezkagarriak direlako eta Udalbatzak hala erabaki zuelako.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

